

2015EKO AZAROAREN 25EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. =====	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 25 DE NOVIEMBRE DE 2015. =====
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (EH BILDU)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratzaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Gai-zerrendari heldu aurretik, alkateak gai-zerrendan puntu bat sartzea proposatuko dela esan du; puntu hori datozen hauteskunde orokorretarako hauteskunde-mahaien zozketa berresteari buruzkoa da.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

155.- 2015eko URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2015ko urriaren 28an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Antes de iniciar el orden del día el alcalde manifiesta que se va a plantear la introducción de un punto en el orden del día relativo a la ratificación del sorteo de las mesas electorales para las próximas elecciones generales.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

155.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 28 DE OCTUBRE DE 2015.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 28 de octubre de 2015.

ALKATETZA

156.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA: UDAL ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Adierazpena irakurri ostean, Udalbatza Bozeramaileen Batzordeak hartutako ondorengo adierazpen instituzionalaren jakitun geratu da:

Hazkunde prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak.

2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira.

Horregatik guztiagatik:

Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza erakustea eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren bati laster EUSKALDUN BERRIA izena

ALCALDIA

156.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.

Tras darse lectura a la declaración el Pleno se da por enterado de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

La revitalización del euskera en la CAE ha sido un proceso de crecimiento, y han sido dos los principales pilares de este proceso modélico: la educación y la euskaldunización de adultos. En estas últimas décadas, han sido miles y miles los ciudadanos y las ciudadanas que han decidido aprender euskera en edad adulta, y otros miles, eligiendo el euskera, supieran el idioma o no, los que han optado por la opción del aprendizaje en euskera para sus hijos e hijas.

En el Día del Euskera del año 2015, se quiere mostrar públicamente el reconocimiento a las personas que han elegido acercarse al euskera, porque son ellas las que alimentan permanentemente el proceso de revitalización del euskera, y se quiere homenajear el esfuerzo y la voluntad de todas estas personas.

Por todo ello:

Este Ayuntamiento asume el compromiso de mostrar públicamente el reconocimiento a todas las personas que han decidido aprender euskera en edad adulta y denominar en un futuro próximo con el nombre de

jartzea.

Oier Iturraldek dio EH Bilduk proposamenaren aurrean abstenitu egingo dela, nahiz eta euskararen aldeko edozein ekimen babesten duten. Abstentzio hori honako honetan oinarritzen da: Euskararen Nazioarteko Egunean euskararen normalizazioa babesten dela, eta euskaldun berriei egindako omenaldia zalantzan jarri gabe, gobernuko taldeak euskararen alde hartu ditzakeen neurri guztiak ez dituela praktikan jartzen uste du. Getxoko herritar guztiek euskara doan irakasteko aukera izan dezaten eskatu dute, eta doakotasunaren aldeko apustu hori aurrekontuetan islatu beharko zela.

Alkateak erantzun du onartutako adierazpena elkartek aurkeztu dutela Eudelen bitartez, eta Bozeramaileen Batzordean talde guztiek onartu dutela EH Bilduk izan ezik (abstenitu egin da).

157.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: 'EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Proposamena irakurri ostean, Arantza Gutierrezek hitza hartu du esateko adierazpen bat onartuko dela Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta; hala ere, ez dela nahikoa iritzi dute, eta hitzetatik ekintzetara pasa behar dela era guztietako indarkeria matxistaren aurka eta ez soilik sexu-erasoen aurka; horretarako, Getxon jarduera-protokolo zehatz bat prestatzeko eskatu du.

EUSKALDUN BERRIA un determinado espacio del municipio (calle, plaza, jardín, fuente, sala, etc.).

Oier Iturralde que indica que EH Bildu se va a abstener frente a la propuesta pese a que apoyan cualquier iniciativa a favor del euskera. Su abstención se basa en que el Día Internacional del Euskera se apoya la normalización del euskera y sin poner en duda el homenaje a los euskaldun berris le parece que el equipo de gobierno no pone en práctica todas las medidas que puede a favor del euskera. Reclaman la gratuidad de la enseñanza del euskera para toda la ciudadanía de Getxo y que esa apuesta por la gratuidad debería tener su reflejo en los presupuestos.

El alcalde replica que la declaración que se ha aprobado ha sido presentada por asociaciones a través de Eudel y que en Junta de Portavoces ha sido aprobada por todos los grupos excepto por EH Bildu, que se ha abstenido.

157.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 25N: "DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Arantza Gutiérrez que indica que se va a aprobar una declaración con motivo del Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres pero que estiman que es insuficiente y que de las palabras hay que pasar a los hechos ante todo tipo de violencia machista y no solamente ante ataques sexuales, para ello pide que se elabore un protocolo de actuación concreto en

Adierazpena Berdintasun Kontseilutik datorrelako babestuko dutela dio, EH Bilduk bere irizpide politikoetan jarduera irmoagoa proposatzen baitu. Gaurko egunerako deitutako elkarretaratzeak babesten dituztela esanez amaitu du, bai eta indarkeria matxistaren aurka deitutako guztiak ere.

Proposamena bozkatu ostean, ondorengo adierazpen instituzionala aho batez onartu da:

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna", gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituran bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera eta jatorri lekuaren arabera pertsonen

Getxo. Manifiesta que apoyarán la declaración porque proviene del Consejo de Igualdad ya que EH Bildu en sus criterios políticos plantean una actuación más decidida. Finaliza manifestando que apoyan las concentraciones convocadas para el día de hoy, así como todas las que se convoquen en contra de la violencia machista.

Sometida la propuesta a votación es aprobada por unanimidad la siguiente declaración institucional:

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como "Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres", manifestamos nuestro firme rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, económica, simbólica...), así como a las distintas formas de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos o la invisibilización de las mujeres en los distintos ámbitos de la vida, entre otras. Reafirmamos, asimismo, que nos encontramos ante un problema estructural que teniendo como base la desigualdad entre mujeres y hombres requiere un abordaje a través de las políticas de igualdad, tal y como recomiendan numerosas personas expertas y organismos internacionales.

La violencia contra las mujeres se asienta en la misma estructura de la sociedad, que aún ofrece diferentes oportunidades a mujeres y a hombres y que aún limita la libertad de las personas dependiendo del sexo con el que hayan nacido y el lugar de origen.

askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratu onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argi azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ez dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeke orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak

Debemos esforzarnos en construir una sociedad en la que todas las personas tengan la libertad de ser como quieran ser, la oportunidad de desarrollarse en todo su potencial y en la que reciban un trato igualitario y respetuoso con los derechos humanos.

Aspiramos a vivir en una sociedad que garantice los buenos tratos para todas las personas, una sociedad que dé un paso más y además de mostrarse contra la violencia hacia las mujeres, se manifieste claramente a favor de la igualdad de mujeres y hombres. Abogamos por una sociedad en la que las relaciones entre las personas se basen en el respeto, la autonomía y la igualdad. Respetar no sólo significa no agredir, significa también garantizar que cada persona pueda dibujar su trayectoria vital sin la limitación que supone la desigualdad.

Desde las instituciones debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que fomente los buenos tratos, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas.

Por todo ello:

- Nos comprometemos a desarrollar en el ámbito de nuestras competencias, una política municipal activa, integral y coordinada en favor de la igualdad de mujeres y hombres y de los buenos tratos.
- E invitamos a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad, todos

har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean.

y cada uno de los días del año, y a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, así como en el programa de prevención y educación para la igualdad entre la juventud 'Beldur Barik'.

OGASUNA, KONTUAK,
EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,
GAZTERIA ETA EUSKARA

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS,
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y
EUSKERA

158.- HAINBAT DEKRETUREN
BERRI EMATEA:
TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK
AURREKONTUA ALDARAZI.

158.- DACIÓN DE CUENTA DE
DIVERSOS DECRETOS DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL
USO DE TRANSFERENCIAS.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordearen proposamena irakurri eta gero,

Tras darse lectura a la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

4289/2015 zenbakidun Dekretua 41.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/19 kreditu-transferentzia. Kirol entitateentzako diru-laguntzen 3, 5, 6, 7 eta 8. lerroen finantzaketa.

Decreto nº 4289/2015 por un importe de 41.000,00 euros. Transferencia de credito 2015/19. Financiación líneas 3, 5, 6, 7 y 8 de subvenciones a entidades deportivas.

4423/2015 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/20 kreditu-transferentzia. 2. kapituluko gastuak, ekitaldiaren amaierara arteko premiak asetzeko.

Decreto nº 4423/2015 por un importe de 20.000,00 euros. Transferencia de credito 2015/20. Gastos capítulo 2 para cubrir las necesidades hasta el final del ejercicio.

4498/2015 zenbakidun Dekretua 2.500,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/21 kreditu-transferentzia. Kontu

Decreto nº 4498/2015 por un importe de 2.500,00 euros. Transferencia de credito 2015/21. Gastos diversos

Hartzailatzeko 2. kapituluko zenbait gastu.

4507/2015 zenbakidun Dekretua
9.000,00 euroko zenbatekoarekin.
2015/22 kreditu-transferentzia.
Komunikazioko 2. kapituluko zenbait gastu.

4716/2015 zenbakidun Dekretua
15.000,00 euroko zenbatekoarekin.
2015/23 kreditu-transferentzia.
Eraikinen mantentze-lanak.

4723/2015 zenbakidun Dekretua
8.252,20 euroko zenbatekoarekin.
2015/24 kreditu-transferentzia.
Turismorako app bat sortzeko
zerbitzua - Portu Zaharreko ibilbide
oikonimikoa.

**159.- INBISA SERVICIOS Y MEDIO
AMBIENTE BALTZUAK
SARTUTAKO 263/14 JCA2
PROZEDURAN EMANDAKO
EPAIAREN ETA EPAI HORI
BETEARAZTEN DUEN 4870/2015
DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen,
Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako
Informazio-Batzordearen proposamena
irakurri eta gero,

147/2015 Epaiaren jakitun egon,
Administrazioarekiko Auzien Bilboko
2. Epaitetik 263/14 ohiko prozeduran
egokituta, eta haren xedapen-zatian
honako hau esaten da hitzez hitz:

*“ZATI BATEAN BAIESTEN DA Alberto
Arenaza Artabe prokuradoreak
erakundearen izenean eta ordezkartzan
aurkeztutako demanda. Ondorioz Getxoko*

capítulo 2 Intervención.

Decreto nº 4507/2015 por un importe
de 9.000,00 euros. Transferencia de
credito 2015/22. Diversos gastos del
capítulo 2 Comunicación.

Decreto nº 4716/2015 por un importe
de 15.000,00 euros. Transferencia de
credito 2015/23. Trabajos de
mantenimiento de edificios.

Decreto nº 4723/2015 por un importe
de 8.252,20 euros. Transferencia de
credito 2015/24. Servicio de creación de
una app turística - Itinerario
oiconómico Puerto Viejo.

**159.- DACIÓN DE CUENTA DE LA
SENTENCIA RECAÍDA EN
PROCEDIMIENTO 263/14 JCA2,
PROMOVIDO POR INBISA
SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, Y
DEL DECRETO 4870/2015 DE
EJECUCIÓN DE LA MISMA.**

Tras darse lectura a la propuesta de la
Comisión Informativa de Hacienda,
Cuentas, Promoción Económica,
Recursos Humanos, Juventud y
Euskara,

Quedaron enterados de la Sentencia nº
147/2015, recaída en procedimiento
ordinario 263/14 en el Juzgado de lo
Contencioso-Administrativo nº 2 de
Bilbao, que en su parte dispositiva tiene
el siguiente tenor literal:

*“SE ESTIMA PARCIALMENTE la
demanda presentada por el Procurador Don
Alberto Arenaza Artabe, en nombre y
representación de la entidad y, en*

Udalaren osoko bilkurako erabakia zuzenbidearekin bat ez datorrela ADIERAZTEN DA. Erabaki horren bidez, zehazki, Udalbatza horren 2014ko uztailaren 24ko osoko bilkurako 118/2014 zenbakidun Erabakiaren aurka egindako berraztertze errekurtsoa ezetsi zen, Ogasun, Kontu, Ekonomia Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen proposamena ezetsi zuena, erakunde horrekin garbiketa zerbitzuak jasotzeko sinatutako kontratutik ateratako fakturen zenbateko printzipala ordaintzeko erreklamazioa dela-eta, faktura horiek deuseztatu eta indarrik gabe uzteko. Getxoko Udala KONDENATZEN DA jarduleari 121.426,18 euro ordaintzera, diruaren legezko interesa sorraziko duena erreklamazio judizialaren egunetik harik eta guztiz ordaindu arte. Ez da kostuei buruzko berariazko adierazpenik egin”.

consecuencia, SE DECLARA no ser conforme a derecho el Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Getxo por el que se desestima el recurso de reposición formulado frente al Acuerdo del citado Pleno nº 118/2014, de fecha 24 de julio de 2014, que rechaza la Propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas; Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, sobre la reclamación de pago del principal de las facturas derivadas del contrato de servicios de limpieza, celebrado con la entidad anulándolos y dejándolos sin efectos; SE CONDENA al Ayuntamiento de Getxo a pagar a la actora la cantidad de 121.426,18 euros que devengará el interés legal del dinero desde la fecha de la reclamación judicial y hasta su completo pago. No se hace especial pronunciamiento en costas.”

Gainera, Alkatetzaren 4870/2015 Dekretuaren jakitun geratzea, aipatutako epaiaren betearazpenean emandakoa, eta haren xedapen-zatiak honako hau dio:

Asimismo, quedar enterados del Decreto de Alcaldía nº 4870/2015, dictado en ejecución de la citada sentencia y cuya parte dispositiva indica:

1.- Aipatutako 147/2015 Epiaia betetzeko asmoz, Inbisa Servicios y Medio Ambiente SA (A48903892) enpresak egindako faktura-zerrenda hau ordaintzea aginduko da, indarrean dagoen udal aurrekontuaren 005/9201/2270102 partidaren kargura eta jarraian adierazitako zehaztasun eta zenbatekoekin:

1º.- En cumplimiento de la citada sentencia nº 147/2015, ordenar el pago de la siguiente relación de facturas expedidas por la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A. (A48903892), con cargo a la partida 005/9201/2270102 del vigente Presupuesto Municipal, con el detalle y por los importes que figuran a continuación:

Faktura zk./ Nº factura	Faktura- data/Fec ha factura	Kontzeptua /Concepto	Zenbateko a (BEZ barne)/ Importe (iva incluido)
TB 2014/962	25/06/20 14	Udal-eraikinak barrutik garbitzeko kanona/ Canon servicio limpieza interior edificios	106.977,64

		municipales	
TB 2014/1.001	30/06/20 14	Udal-eraikinen aparteko garbiketa/ Limpiezas extraordinarias edificios municipales	14.448,54
Fakturak guztira/Total facturas			121.426,18

2.- Inbisa Servicios y Medio Ambiente SA enpresaren aldeko 4.401,28 euroko betebeharra baimendu, xedatu eta aitortuko da, 2014ko azaroaren 6tik ordainketa egiten den unera arte sortutako legezko interes gisa. Zenbatekoa indarrean dagoen udal aurrekontuaren 005/0110/3610000 partidaren kargura ordainduko da.

3.- Inbisa Servicios y Medio Ambiente SA enpresari eta udaleko Idazkaritza, Kontu- hartzailletza, Diruzaintza eta Langileria sailei erabaki horren berri emango zaie, baita Bilboko administrazioarekiko auzien 2. Epaitegiari ere.

2º.- Autorizar, disponer y reconocer la obligación a favor de la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A., de la cantidad de 4.401,28 euros en concepto de interés legal devengado desde el día 6 de noviembre de 2014 hasta la fecha de pago, con cargo a la partida 005/0110/3610000 del vigente Presupuesto Municipal.

3º.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A., así como a los departamentos Municipales de Secretaría, Intervención, Tesorería y Personal y al Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 2 de Bilbao.

160.- GEHIGARRIZKO KREDITUA, ZK. 38/2015, EMATEA ONESTEA, 2012KO APARTEKO ORDAINSARITIK %25 ADINAKO KOPURUA (2 ORDAINKETA) ORDAINTZEKOTAN 1. KAPITULUA FINANTZATU BEHARREZ.

Proposamena irakurri ostean, Ibon Rodríguezek adierazi du 2012. urtean PPK kazike baten eran enplegatu publikoei aparteko ordainsaria kendu zuela, eta haren zenbatekoa pentsio-funts batean jasoko zela hitz eman zuen, bete ez duen promesa. Kaltetuen eta udalerrien eskaera eta jarduerak eraginda aparteko ordainsariaren zati bat itzultzen hasi dela uste du. EH Bilduk ordainsari guztia itzuli behar

160.- APROBACIÓN DEL CRÉDITO ADICIONAL Nº 38/2015 PARA LA FINANCIACIÓN DEL CAPÍTULO 1 CON MOTIVO DEL ABONO DEL 25% DE LA PAGA EXTRA DE 2012 (2º PAGO).

Tras dar lectura a la propuesta interviene Ibon Rodríguez que manifiesta que el año 2012 el PP de manera caciquil suprimió la paga extra a los empleados públicos y prometió que su importe se iba a incorporar a un fondo de pensiones, cuestión que no ha cumplido. Cree que motivados por las reclamaciones y actuaciones de los afectados y los municipios está procediendo a devolver parcialmente la

dela esan du, eta interesekin, eta Alderdi Popularraren politikaren aurrean amore ematea dakarren proposamen hau ez dutela babestuko; beraz, abstenitu egingo dira.

paga extra. Manifiesta que EH Bildu cree que hay que devolver toda la paga y con intereses y que no van a dar cobertura a esta propuesta que es contemporizar con la política del Partido Popular, por lo que se abstendrán.

Bozketa egin ostean, honako emaitza hau ateratu da: Aldeko 21 boto (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos); 4 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 21 votos a favor, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, se acordó por mayoría:

Onestea bada, gehigarriko kreditua emateko espedientea, zk. 2015/38, zenbatekoa €467.599,97 euro duela guztira; beraien gainean erasana duen aurrekontuko partidak hona:

Aprobar el Expediente número 2015/38 de Crédito Adicional, por importe de 467.599,97 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
005/9201/1200000	Oinarrizko ordainketak Retribuciones básicas	315.677,34
002/2313/4310001	Erakunde autonomoei Organismos autónomos	55.517,82
003/3260/4310001	Erakunde autonomoei Organismos autónomos	28.692,89
003/3340/4310001	Erakunde autonomoei Organismos autónomos	37.465,80
008/3400/4310001	Erakunde autonomoei Organismos autónomos	30.246,12
Guztira Total		467.599,97

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de Tesorería para Gastos Generales	467.599,97
--	-------------------

161.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA, ALGORTAKO PORTU ZAHARREKO "PORTUZARRA" AUZO-ELKARTEARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUN GISA ERABILTZEARREN, PORTU ZAHARREKO ERAIKINEI ATXIKI ZAIEN TERMITA-KOLONIAREN IKUSKAPENA, INSTALAZIOA, KONTROLA ETA KONEXIOA EGITEAGATIK.

Proposamena irakurri ostean, Enrique Pradak hitza hartu du esateko GUK taldeak proposamena atzeratzeko eskatu behar zuela Portu Zaharrean sortutako arazoa hobeto aztertu ahal izateko, baina atzerapen horrek sor ditzakeen eragozpenak ikusirik, atzera egin dutela. Portu Zaharrari lagundu egin behar zaiola uste du, baina zuzeneko diru-laguntza izenduna ez dela hori egiteko era egokiena, arazoa arinegi eta gehiegi sakondu gabe aztertzen baita. Udalak kontratatu eta gastua kudeatu behar duela uste du lan hori herritarrei utzi gabe, eta horrek ez du esan nahi haien zintzotasuna kolokan jarri behar denik. Dituzten zalantza guztiak hitzarmenaren bitartez ere ez dituztela argituko uste dute. Diru-laguntzaren premia zergatik dagoen galdetu du kaltea baloratzeko txosten tekniko bat oraindik ez dagoenean; zer gertatzen den Portu Zaharra birgaitzeko eremu integratu hartzeko proposamenarekin; zer gertatuko den termiten arazoak dituzten Getxoko gainerako eraikuntzekin; diru-laguntza emateko garaian errenta-maila kontuan hartuko den; termitengatik inbertsioren bat egindako herritarrei zer tratamendu

161.- APROBACIÓN DEL CRÉDITO ADICIONAL PARA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN DE VECINOS DEL PUERTO VIEJO DE ALGORTA "PORTUZARRA", PARA LA EJECUCIÓN DE LA INSPECCIÓN, INSTALACIÓN, CONTROL Y CONEXIÓN CON LA COLONIA DE TERMITAS QUE AFECTAN A LOS EDIFICIOS DEL PUERTO VIEJO.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Enrique Prada manifestando que GUK iba a pedir un aplazamiento respecto a la propuesta a fin de poder estudiar mejor la problemática planteada en el Puerto Viejo, pero que ante los inconvenientes que puede generar ese aplazamiento han desistido de esa propuesta. Estima que hay que ayudar al Puerto Viejo pero cree que la subvención nominativa directa no es la mejor forma porque se aborda la problemática de forma precipitada y sin profundidad. Cree que debe ser el ayuntamiento el que contrate y gestione el gasto sin dejar esa función a los vecinos, sin que ello suponga poner en duda la honestidad de los mismos. No creen que ni mediante el convenio se aclaren todas las dudas que tienen. Pregunta a qué se debe la urgencia de la subvención cuando no hay un informe técnico todavía que valore el daño, qué pasa con la propuesta de considerar el Puerto Viejo como un área de rehabilitación integrada, qué ocurrirá con el resto de edificaciones en Getxo que también tienen problemas de termitas, si se va a tener en cuenta el nivel de renta a la hora de dar la subvención, cómo se va a tratar a

emango zaien...; gai horiek guztiek erantzunik ez dute oraindik.

Ibon Rodriguezek dio EH Bilduri egokia iruditzen zaiola udalak auzo-elkartearekin harreman estua izatea eta haren eskaerei erantzutea. Termiten arazori aurre egin behar zaiola argi dute; horregatik, laguntza ematearekin ados daude, baina erabili beharreko metodologiak zalantzak eragin dizkie; izan ere, proposatzen dena udalaren eta gobernuko taldearen kudeaketa txarraren adierazle da, erantzukizuna herritarrengan jartzen baitute, eta hori guztia gertatu da ez delako garaiz jardun. Portu Zaharrarekin zer harreman dagoen argitu behar dela uste du, partikularrei emandako laguntzak diren, eta hala bada, errenta-maila aintzat hartu beharko zela; aurrez inbertitu dutenekin zer gertatzen den ere argitu behar da (udalerriko beste toki batzuetan termitak dituztenak), edo gune publiko modura egindako jardura den. Beste auzo-elkarte batzuei bizkorragoa delako parkeak konpontzeko dirua ematen zaien ere galdetu du. Elkartearen zalantzarik ez dute, baina udalak berak kudeatu beharko zuen erantzukizun bat eman zaiela iritzi dute. Sinatu beharreko hitzarmena ez ezagutaraztea kritikatu du, eta jakinik Portu Zaharreko proiektua lau edo bost urterako dela, datozen urteotako finantzaketa nola bermatuko den jakin nahi du. Termiten arazoa udalak udalerrri-mailan aztertu behar zuela azaldu du, arazo publiko bat bada erakunde publiko modura jardun beharko zuela, eta partikularren arazoa bada laguntzak kudeatu beharko zirela berdintasun eta errenta-mailaren irizpideei gutxienez erreparatuz; gai horiengatik EH Bildu

aquellos vecinos que ya han hecho alguna inversión por el tema de las termitas, cuestiones que todavía están sin respuesta.

Ibon Rodríguez manifiesta que a EH Bildu le parece bien que el ayuntamiento tenga una estrecha relación con la asociación de vecinos y atienda a sus peticiones. Ven claro que hay que hacer frente a la problemática de las termitas y por eso les parece bien que se ayude, pero les genera dudas la metodología ya que lo que se plantea es un exponente de la mala gestión municipal y del equipo de gobierno, ya que les pasa la responsabilidad a los vecinos y todo ello es porque no se ha actuado a tiempo. Entiende que hay que clarificar qué relación se tiene con el Puerto Viejo si se trata de ayudas a particulares, en cuyo caso habría que tener en cuenta el nivel de renta, también aclarar qué pasa con los que han invertido previamente, los que sufren termitas en otra parte del municipio, o si se trata de una actuación como una zona pública. Pregunta también si a otras asociaciones de vecinos se les da dinero para arreglar parques porque es más rápido. No dudan de la asociación pero creen que el ayuntamiento les traslada una responsabilidad que debe de gestionar el propio ayuntamiento. Critica que no se haya dado a conocer el convenio a firmar sabiendo que el proyecto del Puerto Viejo es para cuatro o cinco años, cómo se va a garantizar la financiación en los próximos años. Estima que el ayuntamiento debiera haber analizado en la globalidad del municipio el problema de las termitas, si es un problema público actuar como entidad pública y si es un problema de particulares habría que gestionar ayudas atendiendo al menos a criterios

abstenitu egingo da.

Eduardo Andradek dio talde popularrak proposamena babestuko duela, eta gobernuko taldeari eskerrak eman dizkio osoko bilkurara ekarteagatik, eta hori positiboa dela talde bakoitzak zer jarrera duen ikusi ahal izateko. Iaz, PPk eta EAJ-PNVk Batzar Orokorretan izenpetutako akordioari esker, Portu Zaharrean 100.000 euro inbertitu zirela gogorarazi du elkarteko irizpideei jaramon eginez, eta aurren ere diru-laguntza hori ere eman dela elkarte horren eskaerari kasu eginez. Hain adierazgarria den Portu Zaharreko elkarteari laguntzeko proposamena ikusirik, GUK eta EH Bilduren jarrerak ez ditu ulertzen, eta adierazi du talde popularrak Portu Zaharreko bizilagunei ondasun higiezinaren gaineko zerga salbuesteko proposamena babesten jarraituko duela.

Enrique Pradari hunkigarria iruditzen zaio talde popularraren eta gobernuko taldearen artean dagoen maitasun-harremana. GUK taldearen ustez, asmo zuzenak bide okerra hartzea eraman dezake, eta ondarea babesteko behar publiko hori finantzatzeko formula ez zaie egokia iruditzen. Gobernuko taldeari eta talde popularrari galdetu die zer egin duten duela bi urtetik Portu Zaharra birgaitzeko eremu integratu modura garatzea erabaki zenetik.

Koldo Iturbe harrিতa agertu da partaidetza eta elkartegintza sustatzen duten talde politikoak abstenitu egin direlako, proposatzen dena auzo-elkarte batekin lortutako akordio baten emaitza denean. GUK taldeari

de igualdad y nivel de renta y que por todas estas cuestiones EH Bildu se va a abstener.

Eduardo Andrade manifiesta que el grupo popular va a apoyar la propuesta y agradece al equipo de gobierno que la hayan traído al pleno, lo que es positivo para que pueda verse la posición de cada grupo. Recuerda que el año pasado gracias a un acuerdo del PP con el PNV en Juntas Generales se invirtieron 100.000 euros en el Puerto Viejo atendiendo a los criterios de la asociación y este año también se otorga esta subvención atendiendo a la petición de la asociación. No entiende las posturas de GUK y EH Bildu ante la propuesta de ayudar a una asociación representativa como la del Puerto Viejo e indica que el grupo popular seguirá apoyando la propuesta de exención del IBI a los vecinos del Puerto Viejo.

Enrique Prada manifiesta que le parece conmovedor el romance del grupo popular con el equipo de gobierno. Para GUK el fin no justifica los medios y la fórmula de financiación de esta necesidad pública de protección del patrimonio no les parece adecuada. Pregunta al equipo de gobierno y al grupo popular qué han hecho desde hace más de dos años que se acordó desarrollar el Puerto Viejo como área de rehabilitación integrada.

Koldo Iturbe manifiesta su asombro porque los grupos políticos que hacen bandera de la participación y de las asociaciones se abstengan cuando lo que se plantea es fruto de un acuerdo con una asociación de vecinos.

gogorarazi dio batzordean aldeko botoa eman zuela gaia bertan aurkeztu zenean, eta batzorde horretan bertan sortutako zalantza guztiei erantzun zitzaiela. Gobernuko taldeak Portu Zaharreko auzo-elkartearekin 2013. urtetik izandako jarduerak nahiz harremanak erreparasatu ditu, eta proposamena elkarrizketa zein akordio horien emaitza direla aipatu du. 2015eko maiatzean elkartea proiektua egiteko beharra proposatu zuen, azaroan proiektua zehaztu da eta, harrezkero, gobernuko taldea proposamen horrekin martxan jarri da, eta haren izapidetzean udaleko zerbitzu teknikoek parte hartu dute. Kontratazio eta lanketako prozesuan dagoen birgaitzeko eremu integralari dagokionez eta proiektuaren kostu eta iraupenari dagokionez, urte batzuei eragiten dietela onartu dute eta etorkizunean ere babesten jarraituko dutela. Talde popularrari adierazi dio diru-laguntza izenduna izatean beharrezkoa zela Udalbatzak onestea.

Ibon Rodriguezek erantzun du ez dutela zalantzan jarri gobernuko taldeak auzo-elkartearekin izandako harremana eta diru-laguntza zertarako erabiliko den; baliabide publiko horien kudeaketa elkarte batek egitea sortzen dizkie zalantzak. Partaidetza diru-laguntzak banatzea edo elkarrekin harremanak izatea baino zerbait gehiago dela uste du. Arazo horren berri aspalditik badago, zertara datozen orain presa hauek guztiak kritikatu du. Udalari kudeatzea dagokion funts publiko horiek nola kudeatuko diren ez dute batera argi, nahiz eta zalantzan ez jarri adierazitakoan xahutuko dela. Talde popularrari erantzun dio EH Bilduk ez duela babesten diru publikoa administrazioaren kontrolik gabe kudeatzea, eta prozedura ez dutela

Recuerda a GUK que votó a favor en la comisión cuando se presentó el tema y que en dicha comisión se respondió a todas las dudas planteadas. Repasa las actuaciones y relaciones del equipo de gobierno con la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo desde el año 2013 e indica que la propuesta es fruto de esas conversaciones y acuerdos. En mayo de 2015 la asociación les planteó la necesidad de acometer el proyecto y en noviembre se ha definido el proyecto y a partir de entonces el equipo de gobierno se pone en marcha con esta propuesta en cuya tramitación han participado los servicios técnicos municipales. Respecto al área de rehabilitación integral manifiesta que está en proceso de contratación y elaboración y respecto al coste y duración del proyecto reconocen que afecta a varios años y que a futuro también seguirán apoyando. Indica al grupo popular que al tratarse de una subvención nominativa era necesaria la aprobación por el pleno.

Ibon Rodríguez replica que no han puesto en duda la relación del equipo de gobierno con la asociación de vecinos ni a qué se va a dedicar la subvención, lo que les genera dudas es que la gestión de esos recursos públicos la realice una asociación. Cree que la participación es más que un reparto de subvenciones o de tener contactos con asociaciones. Critica que si desde hace tiempo se conoce el problema porqué estas prisas. Duda acerca de cómo se van a gestionar esos fondos públicos que corresponde gestionar al ayuntamiento, aunque no ponga en duda que se gastará en lo indicado. Al grupo popular le contesta que EH Bildu no apoya que el dinero público se gestione sin control de la administración y que el procedimiento

gustuko kontrol publikoa murriztu daitekeelako gastuaren helburua ezbaian jarri gabe; hautatutako prozedurak udalaren kudeaketa eza estali nahi duela uste du ere.

Enrique Prada bere argudioak entzun ez izana kritikatu du. Laguntza eta gobernuko taldearen borondatea ez dute kritikatu, aukeratutako formula baizik. Sortutako zalantzaren bat Portu Zaharreko bizilagunei helarazi zaiela onartu du. Kudeaketaren erantzukizuna ez dela bizilagunena izan behar uste du. Azkenik, batzordean agertutakoarekin alderatuz orain erakutsitako jarrera-aldaketa osoko bilkuraren aurretik egiten den batzar irekiak hartutako jarreragatik izan dela.

Koldo Iturbek EH Bilduri erantzun dio orain aurkeztu dela auzo-elkartek jarduera azaroan egitea nahi zutelako. Proposamenaren aurretik funtzionarioen txostenen bidezko kontrol publikoa egin dela esan du berriz, eta hura egingo dela ere gastua justifikatzen denean. Gobernuko taldeak onetsiko duen hitzarmenean lan egitea egokitzen dela orain adierazi du. GUK taldeari Portu Zaharreko bizilagunekin harremanak izatea aitortu dio, baina gobernuko taldeak elkarteko zuzendaritza-batzordearekin solaskide izaten jarraitzen duela dio.

Jose Luis Landak aipatu du EAJ-PNV eta PSE-EEren arteko gobernuko itunean Algortako Portu Zaharraren garrantzia azpimarratu zela, birgaitzeko eremu integratua ere bertan txertatu zela, eta horretan dihardutela. Partaidetzari dagokionez, entzute

no les gusta porque puede rebajarse el control público sin poner en discusión la finalidad del gasto y cree que el procedimiento elegido busca encubrir una falta de gestión municipal.

Enrique Prada lamenta que no se hayan escuchado sus argumentos. No han criticado la ayuda ni la voluntad del equipo de gobierno sino la fórmula elegida. Reconoce que alguna de las dudas planteadas les han sido trasladadas por vecinos del Puerto Viejo. Cree que la responsabilidad de la gestión no debe recaer en los vecinos. Finalmente indica que su cambio de posición respecto a lo que mantuvieron en la comisión se debe al posicionamiento adoptado por la asamblea abierta que celebran antes de cada pleno.

Koldo Iturbe responde a EH Bildu manifestando que se ha presentado ahora porque la asociación de vecinos ha concretado el mes de noviembre la actuación que querían que se realizara. Insiste en que ha habido un control público antes de la propuesta por parte de informes de funcionarios y habrá también cuando se justifique en gasto. Manifiesta que ahora corresponde trabajar en el convenio que será aprobado por el equipo de gobierno. A GUK le reconoce que hagan contactos con vecinos del Puerto Viejo pero que el equipo de gobierno mantiene su interlocución con la junta directiva de la asociación.

Juan Luis Landa indica que en el pacto de gobierno del PNV y el PSE-EE se subrayó la importancia del Puerto Viejo de Algorta y ahí se incardinó también el área de rehabilitación integrada y en ello están. Respecto a la participación entiende que es más que una escucha

aktibo bat baino gehiago dela uste du, eta kritikatu du zenbait taldek autokudeaketa gazte-taldeetarako bakarrik dela pentsatzea eta adineko taldeetarako ez onartzea, haurren antzera tratatzen dituztenak. Termiten arazoari dagokionez, jardun behar den lokalizatutako foko bat dela uste du.

Alkateak dio, EAJ-PNVren bozeramaile modura hitz eginez, GUK eta EH Bilduren jarrera deigarria egiten zaiola; bi talde horiei diru-laguntza oso handia iruditzen zaie eta oso eskasa diru-laguntza izendunan egindako kontrol publikoa, eta gogora ekarri du kontrol-mota bera eta zenbateko handiagoak jasotzen dituzten elkarteekin lan egiten dela; nolana ere, elkarte horiek ez dute mesfidantzarik sortzen, baina bai kasu honetan, eta horrek ondorengo iradokitzen dio: gai hori Portu Zaharreko auzo-elkarteari azaldu beharko ziotela. Hizketaldia amaitu du esanez udaleko kudeaketari eta partaidetza-moduei buruzko ezjakintasuna erakusten dutela.

Bozketa egin ostean, honako emaitza hau ateratu da: Aldeko 17 boto, EAJ-PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos eta 8 abstentzio, GUK eta EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea bada, gehigarritzko kreditua emateko espediente, zk. 2015/39, zenbatekoa €100.000,00 euro duela guztira; beraien gainean erasana duen aurrekontuko partidak hona:

aktibo bat baino gehiago dela uste du, eta kritikatu du zenbait taldek autokudeaketa gazte-taldeetarako bakarrik dela pentsatzea eta adineko taldeetarako ez onartzea, haurren antzera tratatzen dituztenak. Termiten arazoari dagokionez, jardun behar den lokalizatutako foko bat dela uste du.

El Alcalde, interviniendo como portavoz del PNV, manifiesta que le llama la atención la postura de GUK y EH Bildu a los que les parece muy alta la subvención y muy poco el control público que se da en la subvención nominativa y recuerda que hay asociaciones con las que se viene trabajando que reciben cuantías más altas con el mismo tipo de control, pero sin embargo esas asociaciones no generan desconfianza mientras que en este caso si, lo que le sugiere que esa cuestión deberían de explicarla a la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo. Finaliza manifestando que reflejan desconocimiento de la gestión municipal y de las formas de participación.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos y 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2015/39 de Crédito Adicional, por importe de 100.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
003/3360/4816700	"Portuzarra" Algorta-ko Portu Zaharraren auzo-elkartea (Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa) Asociación de vecinos Puerto Viejo Algorta "Portuzarra" (Protección y gestión del patrimonio histórico-artístico)	100.000,00
Guztira Total		100.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de Tesorería para Gastos Generales	100.000,00
--	-------------------

162.- LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA.

Proposamena irakurri ostean, bozketa egin da, eta handik honako emaitza hau aterata da: Aldeko 19 boto, EAJ-PNV, GUK, EH Bildu eta PSE-EE; 6 abstentzio, PP, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- "Langile, Antolaketa eta Informatika arduradunaren" lanpostuan (lanpostuen zerrendan 19. kodea) izena aldatuko da eta horren ordez "Giza Baliabide eta Antolaketa arduraduna" izango da. Hirugarren hizkuntza-eskakizuna izango du 2015/08/01 derrigortasun datarekin, eta osagarri berezia 43.637,70 eurokoa izango da, tarte berezian osagarri bereziaren kontzeptupean zenbatekoa

162.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación obteniendo el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 6 abstenciones, PP, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

PRIMERO.- Modificar, en el puesto de trabajo "Responsable del Área de Personal, Organización e Informática" código 19 de la Relación de Puestos de Trabajo, la denominación que se sustituye por "Responsable de Recursos Humanos y Organización"; el perfil lingüístico que será el 3 con fecha de preceptividad 1/08/2015; el complemento específico, el cual será de 43.637,70 euros (en razón de añadir una

bat (7.546,96 €) erantsiko baita. Oharretan, berriz, "erabateko prestasuna" gehituko da.

Proposatutako aldaketak Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Giza Baliabideen zinegotziak 2015eko urriaren 23an egindako eskean arrazoituak daude eta ondoren laburbiltzen dira:

Postuaren izena aldatzeak honakoei erantzuten die: batetik, dauden errealitate eta funtzioetara moldatzeari, "informatikaren" saila sartzeak ez baitie egungo beharrei erantzuten. Batetik, mendekotasun politiko bereizia dago eta informatikako arduradunaren postua agertzen da, beraz, hierarkiaren eta funtzioaren ikuspegitik bere erantzukizunpeko eremuan informatikako unitatea sartzea ez da beharrezkoa.

Bestetik, postuari emandako funtzioak ikusirik, ikuspegi honetatik Giza Baliabide eta Antolaketa arduradunaren irudiak antolaketa orokorrean oinarritzko zeregina izatea eskatzen du. Ildo horri jarraiki, antolaketa egituraren esparruan eraginkortasunez parte hartu beharko du eta arduradun politikoekin nahiz teknikariek lankidetzat estua izango du, erakundeko pertsonen kudeaketa diseinatu eta gauzatzean. Horregatik proposatzen da "Langileen Arloaren" ordez "Giza Baliabideak" erabiltzea, azkeneko terminoak giza baliabideen kudeaketaren zerbitzuan hobekuntza bezala eskatu behar denari buruz ikuspuntu zabalagoa eta eguneratuagoa duelakoan.

Lanpostuari atxikitako HEr buruz,

cuantía en concepto de complemento específico tramo especial de 7.546,96 €); y el apartado de Observaciones que se incorpora "Disponibilidad Absoluta".

Las modificaciones propuestas vienen motivadas en la solicitud del Concejal de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, de fecha 23 de octubre de 2015, y que se resumen a continuación:

La sustitución de la denominación del puesto responde, por un lado, a la adecuación de la realidad y funciones existentes, ya que la inclusión del departamento de "informática" no obedece a las necesidades actuales, habida cuenta de que la dependencia política diferenciada y la existencia de un puesto de Responsable de Informática hacen que sea innecesaria la inclusión de la unidad de informática en el ámbito de su responsabilidad tanto jerárquica como funcional.

Por otro lado, a la vista de las funciones encomendadas al puesto, se requiere, desde esta visión, que la figura del Responsable de Recursos Humanos y Organización asuma un papel clave en la organización general, y que participe activamente en el marco de la estructura organizativa, con una estrecha colaboración con los responsables tanto políticos como técnicos en el diseño y ejecución de la gestión de las personas de la institución. Es por ello que se propone la modificación del término "Área de Personal" por "Recursos Humanos" por considerar esta acepción una visión más amplia y actualizada de lo que se exige como mejora en el servicio en la gestión de los recursos humanos.

En relación con el PL asignado al

nahiz eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren nahitaezko txosten ez-lotesleak, 2015eko irailaren 7koa, erantsi zaio eta 4. hizkuntza-eskakizuna esleitzea gomendatzen duen, errealitatearekin egokiagoa da nahitaezko 3. hizkuntza eskakizuna eskatzea, estaltzeko etorkizuneko deialdian partaide kopurua gehitzeari begira.

